

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

Gasteizko udaleko C1 taldeetako lanpostuak betetzeko sustapen eta enplegu-eskaintza deialdiko eskaintza handitzea

Gasteizko udaleko C1 taldeetako lanpostuak betetzeko sustapen eta enplegu-eskaintza deialdiko eskaintza handitzea onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko irailaren 24an egindako bilkuran.

Gasteizko Udalak, agintaldi honetarako helburuen artean, Aurrekontu Orokorren Legeak baimendutako sustapen eta enplegu-eskaintza publikoa deitzea proposatzen du, udal egitura sendotzeko eta udalaren zerbitzura dauden langileen administrazio karrera sustatzeko neurri gisa.

Une honetan, C1 taldeko 162 lanpostu eta C1/C2 taldeko plaza bat betetzeko enplegu eskaintza publiko bat gauzatzefasean dago —2018ko abenduaren 28an eta 2019ko abenduaren 13an Gobernu Batzarretan onetsia eta 2019ko otsailaren batean eta 2020ko urtarrilaren 20an ALHAOn argitaratua—, eta eskaintza onetsi zenetik gaur egunera hainbat lanpostu huts geratu dira udalaren lanpostu zerrendan, hainbaten erretiro eta behin betiko bajak direla eta.

Kontuan izanik gehitzea proposatzen den 27 lanpostuak ezargarri zaizkion berritze-tasak ezarritako mugen barruan daudela, sektore berei dagozkiela (69,5 plaza), eta eskaintzaren oinarrietan jasota dagoela aukera hori; izan ere, hala baitio Gasteizko Udaleko lanpostuak eskaintza publikoaren bitartez betetzeko deialdia arautzen duen deialdiaren 1.5 atalak.

“1.5. Orobat, kategoria berean hutsik dauden dotazioak gehitu dakizkioke eskaintzari, Gobernu Batzarrak hori alde aurretik onetsita eta ALHAOn argitaratuta, baldin eta oposizio-fasea amaitu ez bada”

Era berean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 372. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, hainbat negoziazio-bilera egin dira Udaleko langileen batzordearekin, 2021eko irailaren 13an eta 17an, egoki iritzitako alegazioak aurkezterik izan zezaten.

Azkenik, eta deialdien argitalpenei dagokienez, deialdiak eta oinarriak BOEn argitaratuko dira, Estatuko Administrazio orokorrean sartzeko eta lanpostuak hornitu eta lanbide sustapenerako erregelamendu orokorra onartzen duen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak 15. artikuluan xedatzen duenari jarraiki.

Era berean, 6/1989 Legearen 24. artikulua xedatzen duenez, “lan eskaintza publikorako eskaintzak EHAAan edo Foru Aldundi edo Udal Batzarrenak badira, Lurralde Historikoko aldi-zkarian argitaratuko dira. Azken kasu honetan, EHAAan ere argitaratu beharko da eskaintzen laburpen bat”

Horrenbestez, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan aitortzen dizkion eskumenez baliatuz, eta 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bitartez Giza Baliabideen arloko zinegotziaren esku utzitako aginpi-dea betez, Giza Baliabideen Arloko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehen: Onespena ematea Gasteizko Udaleko C1 taldeetako lanpostuak betetzeko sustapen eta enplegu-eskaintza deialdiko eskaintza handitzeari.

TITULAZIO-TALDEAK	KOD. LANPOSTUA	IZENA	HIZK. ESK.	DERRIGORTASUN DATARIK EZ			DERRIGORTASUN DATA	GUZTIRA
				DESG.	BS	LIBRE	LIBRE	
C1	1456	OBRA-IKUSKATZAILEA	2		1			1
	1478	KONTRATA IKUSK.	1		1	1		2
	1499	IKUS-ENTZUNEZKOEN T.E.	1			1		1
	1602	MANTENTZE T. E.	2		1			1
	2005	ADMINISTRARIA		1		6	15	22
				1	3	8	15	27

Bigarrena: Barne-sustapenaren eta enplegu-eskaintza publikoaren deialdi-handitze hau BOEn, EHAAn eta ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko irailaren 24an

Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE